

Euskara eta masokismoa

H

arrigarria bainoago etsigarria, Katixa, aipatzen duzun *aqua spinning* euskaldun horrena, ez musikagatik baizik eta *basque nostalgia* musika bakarrik entzun behar horregatik. Beharbada, niretako euskararekiko harremana, beste zenbaitendako aparteko egoera izan dena, normalean izan delako (etxetik dakit, Arbizun 80 hamarkadan hiru erdaldun baino ez zeuden, karrera euskaraz egin nuenez Euskal Herri guztiko euskaldunak ezagutu eta lagun egin nituen) ez ditut gehiegi ulertu Euskal Herrian Euskaraz bezalako taldeak; integrista (barkatu) xamarak irudititu zaizkit beti (nire iragana oraingo presupuesto ideologikoen arabera eraikitzen hasi naizeneko edadera ailegatzten ari naitela uste dut. Malo!). Horregatik ez dut gehiegi ulertzen jendea zaletasunetara euskaragatik apuntatzea, hori baldin bada aipatzen duzun kasua, Katixa.

Eta bidenabarrean bada ere, Eider, Lopez aipatzen zenuenez, kezkarria iruditzen zait PSEkoek euskarazko murgiltzeari buruz –adituen aholkuei kasu egin gabe, noski– duten iritzia, bi hizkuntzetan hezteko eskubidea, elebitasuna, bi hizkuntzek tratamendu bera izan behar dutela eta matraka hori guztia. Ildo horretatik kezkarria Basagoitik Nafarroa Foralera egindako bisita hezkuntza legalitate konstituzionaltara lerratuko dela agintzera etorria.

Hala ere, euskaldunok euskararekin dugun harremana aztertu eta aldatu egin beharko genukeela (horrela hitz egin badaitke: euskaldunok?, harremana?) bururatu zitzaidan duela gutxi. Apirilaren 21ean zen eta Liburuaren Eguna aitzakia, Aingeru Epaltzaren lanak irakurri genituen ikasle, irakasle eta gonbidatuek egun osoan zehar Biurdana institutuan. Ekitaldia-



Juanjo Olasagarre

Agirre

Rodriguez

ren ondoren hainbat bazkaltera joan ginen. Irakasle eta hainbat arlotako gonbidatuak ari ziren nire inguruan euskararen egoerari buruz solasean: zeinen gutxi erabiltzen duten gure ikasleek, zeinen gaizki dagoen euskararen egoera, zeinen gaizki tratatzen gaituen Nafarroako Gobernuak. Egiak, batzuk, ez horrenbeste, besteak.

Betikoa, nahi baduzue.

Harritu ninduen, ordea, gure artean ezarri zen halako plazerezko anaitasuna izan zen, bai baitzirudien egoera txarraz mintzatzen bainoago, zerbaitez elkarrekin gozatzen ari gineneko konspiratzaile taldea ginel. Euskara fetitxea bilakatu zitzagun –zaigu?– eta denok ere elkarrizketa hartatik plazer soberakinarekin gozatzen ari ginen, gure desio inkontzienteei, zigor nazazu aitatz, eta horrela zure maitasuna lortuko dut, bidea ematen.

Ikasketez psikologoa banaiz ere, ez dut gehiegi maite izan psikologia, alde batera, edo gutxienez bigarren mailako azalpenen esku, uzten zuelako emakume –eta homosexual– subjektuen sorrera. Azken boladan, ordea, gero eta zaletuago nabil. Freudek dio ume zigortu bakarra izateko fantasiari uko egiten diola umeak horrela beste ume zigortu horrekin anaia-(arreb) izateko eta aitaren autoritatearen kontra altxatzen saiatzeko. Argi zegoen, taldean ari ginen gozatzen denok ere aitaren kontrako konspirazioa ezin presaturik. Zein genuen aita? Gaztelera kasu horretan, edo

nahi baduzue gaztelerraren egoera indartsu eta distiratsua.

Psikoanalisiak terapia eta kontzientzia proposatzen ditu sendatzeko. Hizkuntz politika sendoak eta sindromea daukagula jakinda gozatzea, alegia. Eta barkatu berriz ere euskararen egoeraz mintzatzeagatik. ■



Zein genuen aita? Gaztelera kasu horretan, edo nahi baduzue gaztelerraren egoera indartsu eta distiratsua.

Psikoanalisiak terapia eta kontzientzia proposatzen ditu sendatzeko. Hizkuntz politika sendoak eta sindromea

daukagula jakinda gozatzea, alegia

